

# efrfq3

- **Hizkuntza txikia:** Hitzun gutxi dituen hizkuntza. Hitzun kopuru handi batera iristen ez den hizkuntza.
- **Hizkuntza handia:** Hitzun asko dituen hizkuntza.
- **Hizkuntza-transmisioa:** Komunitate bateko hitzunek seme-alabei euren hizkuntza ikastea, horren bitartez historia bat, antolaketa sozial bat eta kultura baten jarraipena ziurtatzeko.
- **Hitzun-komunitatea:** Lehen hizkuntza bera duten edo hizkuntza berean mintzatzen diren pertsonen multzoa.
- **Ama-hizkuntza:** Lehen hizkuntza, haurrak etxean gurasoengandik ikasitako lehen hizkuntza. Haurtzaroan lehenbizi ikasitako hizkuntza, gero erabiltzen jarraitzen dena.
- **Hizkuntza-normalizazioa:** Minorizatuta dagoen hizkuntza bat egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua.
- **Hizkuntza funtzionala:** Eremu edo funtzio formal nahiz informaletan erabiltzen den hizkuntza.
- **Diglosia:** Ukipen-egoeran dauden bi hizkuntza edo hizkuntza-aldaeraren arteko mendekotasun-egoera. Hizkuntza edo aldaera horiek funtzio desberdinetarako erabiltzen dira: bata, funtzio formaletarako (administrazioa, hezkuntza, hedabideak), eta bestea, informaletarako (familia, lagunartea).
- **Elebiduna:** Bi hizkuntza jakin eta erabiltzen dituen hitzun edo giza taldea.
- **Estatus edo Egoera:** Egitura sozial jakin batean, pertsona edo hizkuntza batek besteen aldean duen lekua edo posizioa.
- **Erabilera eremua:** Hizkuntza erabiltzen den esparru eta une guztien multzoa. Kontuan hartzen da nork, nori eta noren aurrean erabiltzen den, zeri buruz eta zein egoeratan, nola, zein asmorekin...
- **Hizkuntza ukipena:** Gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen den erlazioa.
- **Hizkuntza ofiziala:** Estatus ofiziala duen hizkuntza. Ofizialtasunak hizkuntza hori erabiltzeko hainbat eskubide aitortzen die herritarrei.
- **Hizkuntza ordezkapena:** Hizkuntza batek beste hizkuntza baten erabilera-eremuak eta funtzioak irabaziz joatean gertatzen den prozesua. Hizkuntza menderatzaileak aurrera egiten jarraitzen badu, jatorrizko hizkuntza desagertu ere egin daiteke.
- **Pidgin:** Minorizazio egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua.